



EBAZPENA, 2019KO MAIATZAREN 15EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, 2019/2020 IKASTURTERAKO SUKARRIETAN DAGOEN INGURUMEN HEZKUNTZAKO ZENTROAN HAINBAT IRAKASLE LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNEN EDO, HALA BEHAR BALITZ, BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENEKO ERREGIMENEAN BETETZEKO DEIALDIA EGITEN DA.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko irakasle goa beste zenbait kolaboratzaileekin 1982. urtetik ari da lanean Sukarrietan dagoen Ingurumen Hezkuntzako zentroan Urdaibaiko biosfera erreserban. Bere lan eremuak ikerkuntza eta saiakuntza dira eta irakasle eta ikasleak iraunkortasunean oinarritutako bizimodurantz bideratzea du helburua.

Ingurumenaren aldeko sentsibilizazio, kontzientziazio, ezagutza, jarrera aldaketa eta bere aldeko ekimen indibidual eta sozialak garatzea da nahia. Ikasleek naturarekin eta ingurumenarekin erlazionatutako ikerketak garatzeko aukera dute, eta irakasleek esperientzia pedagogiko zein material berriak sortzeko.

Deialdi honen helburua da zentro honetan hainbat lanpostu betetzea 2019-2020 ikasturterako, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak proposatuta.

Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxutu da zerbitzu-eginkizuna. Honako hauetan arautzen da: uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 54. artikuluan (6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa) eta uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuko 12. artikuluan (185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan baldintzak onartzen dituen hitzarmena onartzen duena).

Lan-kontratua duten langileei dagokionez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, 83. artikuluan ezartzen duenez, lan-kontratudun langileak lekuz mugitu eta lanpostuak betetzerakoan, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa izango da oinarri, eta, horrelakorik ezean, karrerako funtzionarioak lekuz mugitzeko eta lanpostuak betetzeko sistema hartuko da aintzakotzat.

Horregatik, egokitzen jotzen da lan-kontratudun langileek lanpostuak betetzeko deialdi honetan parte hartu ahal izatea behin-behineko esleipenaren figuraz, zeina zerbitzu-eginkizunen sistemaren antzekoa baita.

Horren arabera, betiere Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da lanpostu hauek, 2019/2020 ikasturterako, 2. Hizkuntz Eskakizunarekin, betetzea:

- Maisu-maistren Kidegoko Lehen Hezkuntzako hiru lanpostu.
 - Irakasleen kidegoko Bigarren Hezkuntzako lanpostu 1.
- a) Funtzionarioen kasuan, eta praktiketako funtzionarioen kasuan, zerbitzu-eginkizunean beteko dira lanpostuak.
 - b) Lan-kontratudun langileen kasuan, behin-behineko esleipenaz beteko dira.

**Bigarrenena.- Eskakizunak, bazterketak eta uko egiteak.**

- a) Karrerako funtzionarioa izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, dagokion kidegoan, eskatutako lanpostuaren arabera.
- b) Aipatutako mailetako lan-kontratu finkoa duten irakasleek ere parte hartu ahal izango dute.
- c) Orobat parte hartu ahal izango dute praktiketako eta bitarteko funtzionarioek, baina lehentasuna izango dute karrerako funtzionarioek nahiz lan-kontratu finkoa duten langileek.
- d) Eskaera aurkezten denean, Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publiko batean zerbitzu aktiboko egoeran, edo postuaren erreserba dakarren egoera administratiboren batean egotea, eginkizun gabetzea izan ezik.
- e) Era berean, parte hartu ahal izango dute, deialdi honen bidez zerbitzu aktibora itzuliz, zerbitzu berezietakoek eta borondatezko eszedentzia egoeran daudenek, beti ere egoera horretan egoteko gutxieneko epea bete baldin badute.
- f) Ebazpen hau argitaratu den egunera bitarte, deialdi honetan deitutakoez, 2019/2020 ikasturterako, bestelako lanpostu baterako izendatua ez izana zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenaz.
- g) Lanpostu bakoitzeko gainontzeko betekizunak Eranskinetan daude jasota.
- h) Deialdi honetatik kanpo geratzen dira 2019/2020 ikasturterako IRALE programarako liberatuta egongo direnak.
- i) Aurreko ikasturteetan esleitutako zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena 2019/2020 ikasturterako luzatzeari uko egin dioten pertsonak, ezingo dute ukoaren xede den lanpostua aukeratu.
- j) Behin zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena esleituta, ezingo zaio hari uko egin, deialdi honen xede den ikasturtea bukatu arte.

Hirugarrena.- Eskabideak formalizatu, dokumentazioa eta aurkezteko epeak.

- a) Eskabidea formalizatu.

Izangaiek beren eskabidea egin beharko dute Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratutako eredu ofizialean.

Eskabidea Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidali beharko zaio.

Eskabideak ondoko lekuetan aurkeztu ahalko dira:

- Hezkuntza Sailaren Lurralde-ordezkaritzetan.
- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako erregistroetako edozeinetan.

- b) Epea

Eskaerak aurkezteko epea 2019ko maiatzaren 23an bukatuko da, egun hori barne.

Eskariak lehentasun-irizpideei jarraituta ordenatuta egongo dira. Lanpostu bakoitza banan-banan eskatu beharko da, lanpostuaren destinoa zehaztuta.



- c) Eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabideak ondokoarekin batera aurkeztu beharko dira:

- **Eskatutako betekizun espezifikoak:** Haiek egiaztatzeko dokumentazioa (originala edo kopia konpultsatua).

Administrazioaren eskura daudenak alegatu egin beharko dira, eta gainerakoak esandako ziurtagiri bidez aurkeztu.

- **Adierazitako merezimenduak:** Egiaztagiri ofizialak (originalak edo kopia konpultsatuak).

Administrazioaren eskura daudenak alegatu egin beharko dira, eta gainerakoak esandako ziurtagiri bidez aurkeztu.

Eskabidearekin batera aurkeztu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko, ezta dokumentazioan jaso arren behar bezala egiaztatu ez direnak ere

- **Memoria:** Hautagaiek bete beharreko funtzioei eta lanari buruzko memoria bat aurkeztu beharko dute. II. Eranskinetako formatua erabili beharko da eta gehienez, 4 orrikoa izango da, alde bakarretik.

Laugarrena.- Balorazio-baremoa.

- a) Izangaien merezimenduak, deialdi honen I. Eranskinean ezarritako balorazio-baremoaren arabera puntuatuko dira. Ebazpen hau argitaratzeko datara bitarte gauzatu eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak soilik izango dira baloragarriak.
- b) Guztira 30 puntu lor daitezke gehienez.
- c) Memorian 5 puntu gutxienez lortzen ez dituztenak prozesutik kanpo geratuko dira.
- d) Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, honela ebatziko da, hurrenez hurren: baremoaren atal bakoitzeko puntuazio altuenari begiratzuz eta atalak, baremoak ezarritako gehienezko puntuazioaren arabera ordenatuko dira, handienetik hasita.

Bosgarrena.- Balorazio-prozesuaren faseak:

- a) Izangaiek haiek bete nahi dituzten lanpostuetan eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela egiaztatzea: Egiaztapen hau dagokion Lurralde Ordezkaritzak burutuko du.
- b) Merituen balorazioa: Hezkuntza Saileko Lurralde Ordezkaritzako Berrikuntza eta Langileak Kudeatzeko zerbitzuek egingo dute balorazio hori.
- c) Batzordeak parte hartzaileak deitu ahal izango ditu memoriak defenditzeko, beharrezko iritzi gero.

Seigarrena.- Balorazio Batzorde Orokorra.

- a) Balorazio Batzordea sortuko da eta hauek izango dira kideak:
 - Lehendakaria:
 - Bizkaiko Hezkuntza Lurralde ordezkaria edo bere ordezkoa.
 - Batzordekideak:
 - Bizkaiko Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde arduraduna edo bere ordezkoa.
 - Hezkuntza Ikuskaritza Lurralde burua edo bere ordezkoa.



- Ingurumen Hezkuntzako zentroko zuzendari pedagogikoa.
- Idazkaria:
 - Bizkaiko Lurraldeko Langileriaren arduraduna edo bere ordezkoa.
- b) Adituak diren aholkulari teknikoak izan ahalko ditu Balorazio Batzordeak memoriak baloratzeko aipatutako batzordeak zehaztutako irizpideen arabera. Aholkulariok beren espezialitate teknikoak lantzerantz mugatuko dira, eta arlo horiei dagokienean soilik lan egingo dute Balorazio Batzordearekin.
- c) Era berean, sektorean ordezkapen nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat izango da Balioespen Batzordean, hitzarekin baina botorik gabe.
- d) Deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten eta dagokion epean eta moduan aurkeztu diren eskariak balorazio batzordeak baloratzeko ditu.

Zazpigarrena.- Ebazpena.

- a) Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak.

Balorazio-prozesua egin ondoren, Balorazio Batzordearen Lehendakariak, Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko dio deialdi honen ebazpenaren proposamena, azken honek deialdiaren Behin-behineko Ebazpena eman dezan. Bertan, onartu eta baztertutako izangaiak azalduko dira; era berean, izangai bakoitzari emandako puntuazioa osoak eta atalkakoak ere azalduko dira.

Behin-behineko Ebazpena Hezkuntzako webgunean argitaratuko da.

Hiru egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko.

- a) Behin betiko ebazpena.

Izan daitezkeen erreklamazioak aztertu ondoren edo erreklamaziorik ez balego, Langileak Kudeatzeko zuzendariak jakitera emango du aukeratutako hautagaien behin betiko ebazpena. Bertan, hautagai bakoitzari emandako balorazioak azalduko dira, hautatutako eta baztertutako pertsonen azken zerrenda emango da, eta hutsik gera zitezkeen lanpostuak ere azalduko dira. Hautagaien lanpostuetan eskatutako baldintza guztiak betetzen badituzte —barnean hartuta balorazio-baremoan eskatutako gutxieneko puntuazioa—, deitutako lanpostuak ezingo dira hutsik geratu.

Behin-betiko Ebazpena Hezkuntzako webgunean argitaratuko da.

Behin betiko Ebazpenaren kontra, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Zortzigarrena.- Izendapena eta luzapenak.

- a) Aukeratutako izangaiei 2019/2020 ikasturtearen amaierara arte emango zaie lanpostua, betiere ikasturtean zehar titularra berriro lanean hasten ez bada.
- b) Zerbitzu-eginkizunak ematea, betiere, lanpostuak lekualdatze-lehiaketaren bidez ez betetzearen baldintzapean dago.



- c) Zerbitzu-eginkizunen esleipena edo behin-behineko esleipenak jaso dituztenek galdu egingo dituzte horiek, praktiketako funtzionario izendatzen badituzte eta ezin badute praktikak bete deialdi honen arabera esleitutako lanpostuan.
- d) Hautatutako pertsona zerbitzu aktiboan egon beharrean beste administrazio-egoera batean egonez gero, zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena eskuratzeko lanera itzuli beharko du berehala, eta aldi berean esleituko zaio zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena. Ez badu hala egiten, eskubidea galduko du, eta hurrengo puntuazio handiena duen pertsona hautatuko da.
- e) Karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizun bat emango zaie lanpostu horiek 2019/2020 ikasturtearen amaierara arte betetzeko.
- f) Praktiketako funtzionarioei dagokienez, zerbitzu-eginkizun bat emateko, karrerako funtzionario izan beharko dute 2019/2020 ikasturtean.
- g) Lan-kontratudun langileen kasuan, lanpostu horiek betetzeko behin-behineko esleipenaren ebazpena emango da, 2019/2020 ikasturtearen amaierara arte.
- h) Halaber, ordezkapenatarako hautagaien zerrendetan izena emanda dauden langileak edo bitarteko langileak aukeratuz gero, lanpostu horretan izendatuko dira 2019/2020 ikasturtearen amaierara arte.
- i) Aldi hori igaro ondoren, Hezkuntza Administrazioak egindako ebaluazioa positiboa bada, Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendapena luzatu ahal izango du hurrengo ikasturteetarako, horretarako ezarritako prozedurari jarraituz eta lekualdatze-lehiaketan bidez betetzen ez badira.

Bederatziparrena.- Ordezkoen zerrenda.

- a) Gutxieneko puntuazioa atera arren lanposturik lortu ez dutenak berriazko poltsa batean sartuko dira, puntuazioaren araberrako zerrenda batean. Poltsa horren helburua hau izango da: ebazpena eman ondoren eta 2019ko abenduaren 31ra arte hutsik gera litezkeen alor horretako lanpostuak betetzea.
- b) Aldi baterako ordezkapenatarako Hezkuntza sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak 19. artikuluan dioena hartuko da kontuan. Agindu horrek arautzen du EAEko unibertsitateaz aparteko herri-ikastetxeetako irakaspostuen aldi baterako beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda nola kudeatu.

Hamargarrena.- Ordainsariak.

Aukeratutako pertsonen zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenean betetako lanpostuari dagozkion ordainsariak jasoko dituzte.

Hamaikagarrena.- Lan-baldintzak.

- a) Hautatutakoek destinoko zentroan ezarritako ordutegia eta egutegia bete beharko dute. Pertsona hauei aplikatuko zaie Hezkuntza Saileko irakasleen lan-baldintzen gaineko indarrean dagoen araudia.
- b) Hautatutakoek ezin izango dute parte hartu ordu-liberazioa behar duten euskalduntzeko ikastaro luzeetan. Halaber, ordu-liberazioa suposatzen duten bestelako ikastaroetan, parte hartu ahal izateko, dagokion sailburuordetzaren berriazko baimena beharko da.

Hamabigarrena.- Datu pertsonalen babesa.

- a) Hezkuntza Sailak jasotako datuak 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa eta 2/2004 Legean, otsailaren 25koa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, ezarritakoaren arabera tratatuko dira.



- b) Eskatzaileak ados daude beren datu pertsonalak deialdi honetan ezarritako xederako eta bertan aipatzen den bezala erabiltzearekin, bai eta Hezkuntza Saileko webgunean (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus) eta Hezkuntza Ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitaratzearekin ere, baina deialdiaren berezko izapideetarako soilik.

Hamahirugarrena.- Ordezko modura aplikatzeko araudia.

Prozedura gaietan ebazpen honetan arautu gabeko kasuetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

ERREKURTSOAK

Bide Administratiboa bukatzen ez duen Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeari hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, beti ere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 legearen 121. artikuluan eta hurrengoek 112.1 artikulua erekin xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 15ean

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'Jon Agirre Huerga'.

Jon Agirre Huerga
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

**I. ERANSKINA****1. ANTZINATASUNA HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAN: 3 PUNTU, GEHIENEZ ERE.**

- a) EAEko, Hezkuntza Saileko, beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko estatu kideen hezkuntza-sareko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, emandako hilabete bakoitzeko: 0,10 puntu.

Antzinatasuna frogatuko da izendapen edo kontratuaren eta kargu-uztearen fotokopia konpultsatuz, edo zerbitzu-orriaz. Europar Batasuneko estatu kideen ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak frogatzeko beharrezkoa izango da, gainera, zentroa publikoa dela eta emandako irakasgaiak arautuak direla ziurtatuko duen hezkuntza-administrazioaren dokumentu bat —zinpeko itzulpenaz— aurkeztea.

- b) Administrazioaren baimena duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxe pribatuetan eta aurreko a) puntuan adierazitakoez bestelako erakundeen mendeko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, emandako hilabete bakoitzeko: 0,033 puntu.

Antzinatasuna frogatuko da zentroaren zuzendaritzak emandako ziurtagiri baten bidez, non zerbitzuen iraupena jasoko den, eta ikuskaritzaren oniritziak, edo, bestela, kontratuaren fotokopia konpultsatuz eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrek emandako ziurtagiriak, non zentroaren izena eta altako aldiak agertuko diren.

2. ANTZINATASUNA SUKARRIETAN DAGOEN INGURUMEN HEZKUNTZAKO ZENTROAN: 2 PUNTU, GEHIENEZ ERE.

Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,25 puntu

3. ESKATZEN DEN LANPOSTUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN IKASTAROAK: 5 PUNTU, GEHIENEZ ERE.

Kontuan hartuko dira ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatuak (emandako ordu kopurua zehaztuta)

- a) Ingurumen Hezkuntza eta Konstruktibismoa: ikastaroko 10 ordu bakoitzeko 0,20 puntu, eta gehienez ere, 4 puntu.

- b) Proiektu-metodologia; metodo orokorrak; ikaskuntza kooperatiboa; informazio- eta komunikazio-teknologiak; talde-gela dinamikak, inklusibitatea; elkarbizitza; heziketa artistikoa: ikastaroko 10 orduko 0,10 puntu, eta gehienez ere, puntu bat.

4. LANPOSTUAREKIN ZERIKUSIA DUEN LAN ESPERIENTZIA: 9 PUNTU, GEHIENEZ ERE,

4.1. PRESTAKUNTZA PROIEKTUETAN, HEZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PROIEKTUETAN, I+G PROIEKTUETAN, MINTEGIETAN, LAN-TALDEETAN... PARTE HARTZEA (beti ere Hezkuntza Saileko deialdi ofiziala izanik): **5 PUNTU, GEHIENEZ ERE.**



- Eskatzen den lanpostuarekin zerikusia duten gaietan parte-hartze bakoitzeko 0, 5 puntu, eta gehienez 3 puntu.
- Eskatzen den lanpostuarekin zerikusi zuzenik ez badute 0,25 puntu, eta gehienez 2 puntu.

4.2 LANPOSTUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ARGITALPENAK: 2 PUNTU, GEHIENEZ ERE

Eskatutako lanpostuaren alorrekin zerikusia duten argitalpenak balioetsiko dira.

Lanpostuaren edukiari lotutako argitalpenak.

- Autoretzaren argitalpenak, 0.5 puntu
- Koautoretaren argitalpenak edo autoreen taldearen argitalpenak, 0.25 puntu

Azaroaren 2ko 2984/1972 dekretuak, abenduaren 12ko 2063/2008 errege dekretuaren bidez aldatuak, xedatutakoaren arabera ISBN, edo ISSN edo ISMN, derrigorrean adierazi behar duten arren ez duten argitalpenak ez dira baloratuko, ezta autoreak eta editoreak pertsona bera diren horiek

4.3 IKASTAROAK EMAN ETA PONENTZIAK AURKEZTEA: 2 PUNTU, GEHIENEZ ERE.

Lanpostuarekin zerikusirik duten ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak homologatuak baloratuko dira.(ordu kopurua zehaztuta egongo da).

- Emandako 10 orduko 0,50 puntu.
- Ponentzia bakoitzeko, 0,50 puntu.

5. ESPERIENTZIA IZATEA AISIALDIKO HEZKUNTZAREN ETA ANIMAZIO SOZIOKULTURALAREN ALORREAN: PUNTU BAT, GEHIENEZ ERE.

Erakunde ofizialek emandako ziurtagiriak baloratuko dira.

- Hilabete bakoitzeko 0,10 puntu.

6. MEMORIA: 10 PUNTU, GEHIENEZ ERE.

Memoria baloratzeko kontuan hartuko diren irizpideak II.Eranskinean daude.

Memorian 7 puntu gutxienez lortzen ez dituztenak prozesutik kanpo geratuko dira.



II. ERANSKINA

MEMORIA

Gehienez 4 orri alde bakarretik

EGILEA:
LANPOSTUA:

Memoria baloratzeko kontuan hartuko diren irizpideak

1. SARRERA
2. AUKERATZEN DEN LANPOSTUARI BURUZKO EZAGUTZAK. Ingurumen hezkuntza eta Ikuspegi sozio-eraikitzailea.
3. METODOLOGIA : Esku-hartze pedagogikoko tresna eta teknikak
4. MOTIBAZIO ESKUTITZA (orrialde bat): Sukarrietako Ingurumen Hezkuntzako Proiektuarekiko norbere egokitasuna eta konpromisoa.
 - Aurkezpena, lanpostua aukeratzeko arrazoiak.
 - Norbere indarguneak, SESZ proiektuarentzako interesgarri diren norbere ezaugarriak eta konpromisoak.
 - Asmo eta espektatibak.